



Fundación "la Caixa"

Gida azkarra

Euskadi


2026

Sinetsi eta eraldatu

”la Caixa” Fundazioaren *muina*

Sortu zenetik (1904), ”la Caixa” Fundazioaren **misioa** da gizarte hobe eta bidezkoagoa eraikitzen laguntzea, eta aukera gehiago ematea premia handiena duten pertsoneri. Lau dira gure fundazioaren **balioak**: **konpromiso soziala, erantzukizuna, integritatea eta gardentasuna.**

Gizarte-eraldaketarako eragile izateko **ikuspegian** oinarrituta, hainbat jarduera gauzatzen ditugu pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko (pertsonei zaugarrienena, bereziki), eta horretarako, hezkuntza-hobekuntza eta inklusioa sustatzen ditugu, egiturazko desberdinkeriak murrizten laguntzeko, eta arlo zientifikoan talentua, ikerketa eta berrikuntza bultzatzen ditugu, aurrerabide soziala eragin eta osasun nahiz ongizateko erronkei erantzuteko. Era berean, kultura pertsonak hazteko eta gizarteak aurrera egiteko tresna dela uste dugu.



120 urte baino gehiago *pertsonekin* *konprometituta*

”la Caixa”, Kataluniako eta Balearretako Zahartzarorako Pentsioen Aurrezki Kutxa, 1904an sortu zuen Francesc Moragas abokatu kataluniarrak, Kataluniako gizarte zibileko hainbat erakunderen laguntzaz.

Sortu zenetik, ”la Caixa” Fundazioaren bereizgarriak izan dira **konpromiso sozial sendoa** eta **interes orokorraren alde lan egiteko bokazio handia**. Jarduera finantzarioaren eta gizarte-ekintzaren emaitza gisa, erakundeak epe luzera programak eta deialdiak garatzen ditu lehentasunezko hiru arlotan: gizartea; ikerketa eta beka, eta kultura.

Inbertsio sozialaren bolumenari dagokionez, ”la Caixa” Fundazioa munduko fundazio garrantzitsuenetako bat da.



Gizartea

Gizarte-eraldaketa, pertsona zaugarrienen bizi-kalitatea hobetzeko lagungarri diren eta, hezkuntzaren bitartez, etorkizuneko aukerak sortzen dituzten programen bidez.

Ikerketa eta beka

Ikerketa, berrikuntza eta bikaintasuneko prestakuntza sustatzea, *aurrerabidearen eta gizarte-ongizatearen eragile* diren aldetik.

Kultura

Gizartea hobetzea, kulturaren eta zientziaren bidez, hazkunde pertsonalerako eta gizarte-kohesiorako tresna diren aldetik.

↑ % 100



FUNDAZIO-PARTAIDETZA



INBERTSIO AIPAGARRIEN ZORROA



INBERTSIO ALTERNATIBOEN ZORROA



LIKIDEZIA-ZORROA

Gizartea



*Gizarte-
eraldaketa
sustatzen dugu*

CaixaProinfancia

Herentziazko pobrezia zirkulua eteteko lan egiten dugu, eta, horretarako, arrisku-egoeran eta gizartean baztertua dauden familietako haur eta nerabeen garapen soziala eta hezkuntza-garapena sustatzen ditugu.

443 erakunde kolaboratzaile

Euskadin, 2007an programa hasi zenetik

Artatutako haur eta nerabeak 6.092

Euskadin, 2025ean

Artatutako haur eta nerabeak 1.247

EduCaixa

Ikasteko aukerak hobetzeko programak, jarduerak eta baliabideak eskaintzen ditugu, bereziki ingurune zaurgarrietako ikastetxeetan. Kalitatezko hezkuntza sustatzen dugu, irakasleak babestuz eta ahaldunduz, aldaketarako eragile eta gizarte-eraldaketaren protagonista gisa.

Euskadin, 2025ean

Ikasleak 6.676

Irakasleak 280

Ikastetxe parte-hartzaileak 64

Incorpora

Lana aurkitzen laguntzen diegu lan-merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten pertsoneri, 488 gizarte-erakunderekin lankidetzan.

Euskadin, 2006an programa hasi zenetik

Lan-kontratuak 14.877

Enpresa kolaboratzaileak 4.426

Euskadin, 2025ean

Lan-kontratuak 1.210

Enpresa kolaboratzaileak 615

Adineko pertsonak

Adineko pertsonen ondoan gaude, etekin handiena ateratzeko hazkunde pertsonalerako haien aukerei, eta babes-harremanak ahalbidetzen dizkiegu, bizitza betea izan dezaten, komunitatearekin konprometitu, eta isolamendua eta bakardadea prebenitzeko.

Euskadin, 2025ean

Parte-hartzaileak 17.834

Jarduerak 502

Arreta osoa gaixotasun aurreratuak dituzten pertsonentzat

Laguntza psikosoziala eta espirituala ematen diegu bizialdiaren amaieran dauden pertsoneri eta haien senideei.

3 lantalde Euskadiko 11 ospitaletan

Euskadin, 2008an programa hasi zenetik

Gaixotasun aurreratuak dituzten pertsona artatuak 19.049

Artatutako senideak 20.852

Euskadin, 2025ean

Gaixotasun aurreratuak dituzten pertsona artatuak 2.687

Artatutako senideak 1.805

Gizarte Proiektuen deialdiak

Gizarte-erakundeekin elkarlanean, hainbat egitasmo bultzatzen ditugu gizarte-zaurgarritasuneko egoeran daudenen pertsonentzat.

Programan, guztira, 1999an sortu zenetik

Finantzatutako proiektuak 25.646

Euskadin, 2025ean

Finantzatutako proiektuak 51

Europako Gizarte Funtza Plus

Tarteko erakunde gara Gizarteratzeari, Haurren Bermeari eta Pobreziaren aurkako borrokari dagozkion EGF+ programetan, baita Gazte Enpleguari dagokion EFG+ programan ere, eta ildo horretan 3 deialdi ebatzi dira.

Euskadin, 2025ean, +Empleo-rekin

Lan-kontratuak 34

Enpresa kolaboratzaileak 7

Programan, guztira, 2025ean, +Empleo Joven-ekin

Lan-kontratuak 347

Enpresa kolaboratzaileak 103

Euskadin, 2025ean, +Infancia-rekin

Artatutako adingabeak 109

"la Caixa" Fundazioa Gizarte Behatokia

Behatoki berri honek Palau Macaya — UNESCOk babestutako Giza eta Gizarte Zientzietako Nazioarteko Zentroa— eta Gizarte Behatokia lotzen ditu. Helburutzat du gizarte-ikerketa eta ezagutzaren ekoizpena eta transferentzia bateratzea, koherentzia eta eragin handiagoa izateko. Era berean, Palau Macayan dago Erromako Klubak Bartzelonan duen bulegoa.



Programan, guztira, 2025ean

Jarduerak 520

Bisitariak 42.819

Laguntza jaso duten proiektuak 45

Euskadin laguntza jaso duten proiektuak 1

Argitalpenak 20

Nazioarteko lankidetzak eta aliantzak

Afrikan, Asian eta Latinoamerikan pobreziari eta desberdinkeriarri aurre egiteko lan egiten dugu, enplegua, osasuna eta ekintza humanitarioa hobetzeko programak sustatuz. Ezagutza-trukeak eta lankidetzak filantropiko globala bultzatzen ditugu aliantza estrategikoen bidez.



Lankidetzak-programan, guztira, 1997an hasi zenetik

Erakundeak 850etik gora

Herrialdeak 70

Lankidetzak-programan, guztira, 2025ean

Erakundeak 220tik gora

Herrialdeak 19

Onuradunak 800.000tik gora

ProFuturo Fundazioa

Telefónica Fundazioarekin batera, haurren hezkuntza sustatzen dugu Latinoamerika, Afrika eta Asiako ingurune zaurgarrietan. Prestakuntza eta laguntza ematen dizkiegu irakasleei, baita baliabide digitalak ere, hezkuntza-arrakala txikitzeko.

Programan, guztira, 2025ean

Herrialdeak 27

Haur onuradunak 740.000tik gora

Eskolak 2.942

Irakasleak 230.000tik gora

Ikerketa eta bekak



Talentua eta aurrerabidea bultzatzen ditugu

Zientziaren arloko talentua, ikerketa eta berrikuntza bultzatzen ditugu, ezagutzan oinarritutako mundu hobeago eta osasuntsuagoa eraikitzeko.

Bekak

"la Caixa" Fundazioak bikaintasun akademikoa sustatzen du bere Beka Programaren bidez; programa horrek goi-mailako hezkuntzako etapa guztiak barne hartzen ditu. Beka horiek ikasle eta ikertzaile bikainei ematen dizkiegu, eta aukera paregabea dira munduko unibertsitate eta ikerketa-zentro onenetan prestakuntza zabaltzeko eta talentua garatzeko.

Bekak, guztira, 1982an programa hasi zenetik

Baliatutako bekak	6.476
2025ean Euskadin emandako bekak	
Graduko bekak Espainian	1
Graduondoko bekak atzerrian	4
Doktoretzako bekak Espainian eta Portugalen	4
Doktoretza ondoko bekak Espainian eta Portugalen	4
Bekak, guztira	13

Osasun-arloko ikerketa

Osasun-arloko ikerketako deialdiak gizartean eragina duten bikaintasun zientifikoko ikerketa oinarritutakoak, klinikoak edo translazionalak egiteko proiektuak bultzatzen ditu.

Proiektu horiek garrantzi handia dutenez biomedikuntzaren eta osasunaren arloetan, deialdi hau erreferente bihurtu da ikerketaren iberiar ekosisteman.

Euskadin, 2018an programa hasi zenetik

Proiektuak	3
Euskadin, 2025ean	
Proiektuak	1

CaixaImpulse Innovación

Deialdi honen xedea da pazienteen esku jartzea laborategietan lortutako ezagutza, produktu, zerbitzu eta enpresa berriak sortuz bizitzaren eta osasunaren zientzien alorrean.

Hamarkada batez, CaixaImpulse-k pertsonen ongizatea hobetzeko soluzio biomediko eta teknologikoak garatzen dituzten 50 *spin-off* baino gehiagoren sorrera sustatu du.

Euskadin, 2015ean programa hasi zenetik

Proiektuak	5
Programan, guztira, 2025ean	
Proiektuak	31

CaixaResearch Institute

Gaixotasunen immunologian espezializatutako zeharkako eta diziplinarteko Espainiako lehen ikergune handia. Aurreikusita dago lehenengo blokea 2026an inauguratzea. Gaur egun, 2 ikerketa-talde ari dira lanean, eta Biomedical Data Hub eratu da.

Programan, guztira, 2025ean

Ikerketa-taldeko buru aktiboak	2
Berrikuntzako prestakuntza-jardueretan parte hartu duten ikertzaileak eta berrikuntzako adituak	57
Berrikuntzako balorizazio-funtsari esker finantzatutako proposamenak (31 proposamen jaso dira)	12

Lankidetzak estrategikoak

Osasun-arloan, bikaintasuneko 6 ikerketa-zentrok osatutako funtsezko ekosistema bat babesten dugu. Zentro horiek, CaixaResearch Institute-rekin lankidetzan, ikerketa medikoa sustatzen dute; gaixotasun larrienen eta heriotza gehien eragiten dituztenen prebentzioa eta tratamendua bultzatzen dute, eta gizartean eragina duen berrikuntza zientifikoa sustatzen dute.

IrsiCaixa

ISGlobal Instituto de Salud Global Barcelona

VIHIO Institut d'Innovació

barcelonaBeta BRAIN RESEARCH CENTER

SJD Sant Joan de Déu Institut de Recerca

GIMM Galbenstein Institute for Molecular Medicine

Programaren ekosistema, guztira, 2025ean

Ikertzaileak	1.529
5.700dik gora paziente artatuta, tratamendu berrien 1.250 entsegu kliniko baino gehiagori esker	
Argitaratutako artikuluek	2.200dik gora
Enpresa aktiboak	24

Dibulgazio zientifikoa

Ikerketa herritarrekin lotzen duten ekimenak bultzatzen ditugu, ezagutza dibulgatzeko eta gizarte-eraldaketa sustatzeko.

Programan, guztira, 2025ean

CaixaResearch Institute-ren ikerketa biomedikoa dibulgatzeko jardunaldia: "Inmunorevolución: de la investigación a la medicina del futuro"

Gogoeta-zikloa: "Prevención y promoción en salud: del conocimiento a la acción"

"Debates de investigación en salud: la ciencia en diálogo"

CaixaForum+ plataformako dokumentala: RED. Las voces del VIH/sida contra el estigma

Kultura

MATEWIFASOL

Museu de la Ciència
CosmoCaixa

#CosmoCaixaMateMiFaSol



En la música, el
si ens deixem
trobar nos amb
de tota les coses.
La música ens
el matemàtic
modernisme i
la música. La
una disciplina i
ajuda a entendre
propòsits alme,
el sentiment i l'

Toca
i Toca
Play me

*Ezagutza
hurbiltzen
diogu
gizarteari*

CaixaForum+

Doako *streaming* plataforma, kultura eta zientzia edukietan espezializatua (hainbat euskarran erabilgarri: web, Smart TV, gailu mugikorrek eta tabletak).

Programan, guztira, sortu zenetik

Harpidedunak 330.000tik gora

Kontsumo-orduak 600.000tik gora

Edukiak 2.800dik gora

Arte garaikideko bilduma

Espainiako eta nazioarteko artisten obrak biltzen dituen Europako bilduma pribatu garrantzitsuenetako bat.

Programan, guztira, 1985etik

Erakusketak 200

Artelanak 1.092

Artistak 458

Erakusketak eta jarduerak lurraldean

Lurralde bakoitzeko berezitasunetara egokitutako erakusketak, kontzertuak eta hezkuntza-jarduerak, Espainia eta Portugalgo hiri eta herrietako gizarte-, hezkuntza- eta kultura-errealitateak ezagutzeko.

Euskadin, 2025ean

Itinerantziak 1

Hiriak 1

Bisitariak 47.141

Kontzertuak 1

Kontzertuetara joandakoak 1.706

Hezkuntza-jardueretako ikasleak 1.609

Enpresaren ondarearen *kudeaketa-eredua*

CriteriaCaixa "la Caixa" Fundazioaren ondarea **kudeatzeko** tresna independente eta eksklusiboa da. Erakunde horiek txanpon beraren bi alde dira, eta talde bat osatzen dute, duen ondarea egokiro kudeatuz bere gizarte-ekintza garatzeaz arduratzen den talde bat.

CriteriaCaixa-k, Fundazioaren inbertsiorako tresna gisa, honako **helburu** hauek ditu: urteko aurrekontua bermatzeko **baliabideak sortzea**, eta **ondarea** handitzea, **inbertsio-zorroaren kudeaketa aktiboari** esker.

CriteriaCaixa-ren dibidenduak pertsonen bizi-**hobetzeko programetan berrinbertitzen dira**, zaugarrienei laguntzeko, gizarte-eraldaketaren bidez eta baita ikerketa eta kultura sustatuta ere.

"la Caixa" Fundazioa, munduko *fundazio* *handienetako bat*

2026ko aurrekontua

710 M€

Gizartea

416 M€

Ikerketa eta bekak

147 M€

Kultura

147 M€